

LEZOKO 2011/2012 IKASTURTEKO EA21EN KONPROMISO ETA ESKAERAK

Eskolek hartuko dituzten KONPROMISO NAGUSIAK

Ikasturtean zehar bioaniztasunaren gaia landu ondoren, Lezoko Eskolako Agenda 21 programan parte hartzen dugun eskolek ondorengo konpromisoak hartuko ditugu:

- ✓ Eskolan eta etxean, gure ardurapean ditugun landareak eta animaliak modu egokian zainduko ditugu
- ✓ Kultura eta hizkuntza aniztasuna, biodibertsitatearen parte bezala ulertzen dugu, eta horrenbestez, kontserbatu beharreko ondareztat hartuko dugu
- ✓ Animalia zein landare exotikoak erostea saihestuko dugu, inbaditzaile bihurtu eta gure ekosistemetan kalteak eragin baititzakete
- ✓ Jatorri ezberdineko pertsonak errespetuz tratatuko ditugu eta gure gizartean integratzen lagunduko diegu, euren kultura-ezaugarriak mantentzeko aukera emanez
- ✓ Animaliak maskota bezala hartu aurretik, bitan pentsatuko dugu, bizi diren artean geure ardurapean egon beharko baitute
- ✓ Animalien kontrako tratu txarren jabe bagara, hau ekiditen saiatuko gara, eta arazoak jarraitzen badu, udalari jakinaraziko diogu esku hartu dezan
- ✓ Eskola komunitatea osatzen dugunon artean bioaniztasunaren inguruko sentsibilizazioa bultzatuko dugu
- ✓ Ahal dugun neurrian, bai eskolan, bai etxean, bertako landare espezieak landatuko ditugu
- ✓ Maskotak erosi ordez, kalean jaso edo animalien babes etxe batera joko dugu
- ✓ Datozen urteetan, gure atzetik datozenei, bioaniztasunaren inguruan aurtan ikasitakoa ezagutarazi eta hartutako konpromisoak jakinaraziko dizkiegu
- ✓ Eskolan, besteengan ikusten ditugun jarrera desegokiak zuzentzen saiatuko gara: patruila berdea martxan jarriz eta abar
- ✓ Gure etxeokak eta lagunak bioaniztasunaren kontserbazio eta hobekuntzan murgiltzen saiatuko gara
- ✓ Udalari bioaniztasunaren inguruko informazio eta kontzientziazio kanpainak zabaltzen lagunduko diogu, eta, ahal dugun neurrian, burutzen dituen ekimenetan parte hartuko dugu

Eskolek udalari aurkezten dizkioten ESKAERAK

Ikasturtean zehar egindako lanaren ondorioz bioaniztasunaren inguruko diagnosis osatu dugu. Lortutako emaitzen inguruko hausnarketak egin ondoren, identifikatu ditugun gabeziak edo hobekuntza beharrak helarazi nahi dizkiogu Lezoko Udaletxeari, guk konpromisoak hartu ditugun bezala, udalak ere, orain esatera goazen proposamen hauek ere bere egin ditzan:

- ❑ Bioaniztasunaren kontserbaziorako Udalak jarraitu diezaiola aurten ezagutu ditugun ekimenen bitartez hasitako bideari
- ❑ Herriko parke eta lorategien zaintza hobetzea
- ❑ Gure herriko bioaniztasuna arriskuan jar dezaketen azpiegituren kontrako jarrera agertu eta hauen eraikuntza ekiditeko jarduerak burutzea, hala nola: Kanpo-kaiaren edo Lezo-Gaintxurizketa plataforma logistikoari dagokionez
- ❑ Animalia eta landare exotikoen zabalkunderako sentsibilizazio kanpainak burutzea
- ❑ Maskoten abandonuaren kontrako sentsibilizazioa bultzatzea eta abandonatutako animaliak topatuz gero jarraitu beharreko protokoloa diseinatzea
- ❑ Gure eskualdeko bioaniztasuna hobetzeko baliagarri diren korridore ekologikoak definitu eta garatzea
- ❑ Herriko bioaniztasuna balioan jarri eta, aldiro-aldiro, herritarren artean informazioa zabaltzea
- ❑ Animaliekiko tratu txarrak eragiten dituzten ikuskizunak saihestea
- ❑ Landare inbaditzaileak ezabatzeko kanpainak bultzatzea
- ❑ Herriko kultura-aniztasuna baliu jartzeko ekimenak bultzatzea
- ❑ Herri-eskolan Eskola-Baratza proiektua abian jartzen laguntzea, ikasleok eta eskola komunitateak bertako espezieak ezagutzeaz gain, bertako produktuen kontsumoan murgiltzeko
- ❑ Animalien edukitze eta babeserako udal-ordenantza bat osatzea